

# **Lautada bertsoan**

## AURKIBIDEA

### GELAZ GELAKO BERTSOAK

- 3. orrialdea.....Lope de Larrea ikastola - Agurain – 5.A
- 4. orrialdea.....Lope de Larrea ikastola - Agurain – 5.B
- 5. orrialdea.....Lope de Larrea ikastola - Agurain – 5.D
- 6. orrialdea.....Lope de Larrea ikastola - Agurain – 6.A
- 7. orrialdea.....Lope de Larrea ikastola - Agurain – 6.B
- 8. orrialdea.....Lautada ikastola– Agurain - 5.
- 9. orrialdea.....Lautada ikastola– Agurain - 6.
- 10. orrialdea.....Dulantzi Eskola – Dulantzi - 5. A
- 11. orrialdea.....Dulantzi Eskola – Dulantzi - 5. B
- 12.orrialdea.....Araia Eskola – Asparrena – 5. maila
- 13. orrialdea.....Araia Eskola – Asparrena – 6. maila

### KONKTAKTUAK

- 14. orrialdea..... Kontaktuak



### Lope de Larrea ikastola - Agurain

#### 5. A

#### HAMSEL ETA GRETEL

1.

Hansel eta Gretel zeuden  
basoan bizitzen  
Biak anai arrebak  
gutxi jaten zuten  
bere gurasoekin  
mendira joaten  
basoan utzi eta  
galdu egin ziren.

2.

Basorako bidea  
ez zen ez makala  
tunel ilun batean  
sagua bezala  
eskuetan zituzten  
bilduta horrela  
bota zuten bidetik  
ogi zati pila.

3.

Mendira joatean  
galdu egin ziren  
basoaren erdian  
etxe bat zegoen  
txokolatzekoa zen  
hasi ziren jaten  
etxera iristean  
atea jo zuten

4.

Sorgina agertu zen  
ta zen potoloa  
bi anaiak jatea  
zen bere asmoa  
han bizi zen sorgina  
zen oso gaiztoa  
kaiolan sartu zuen  
Hansel gizajoa.

5.

Sorgina han zegoen  
Su hori prestatzen  
Ta sorgin maltzur horrek  
Han jan nahi zituen  
Gretel bere anaia  
Askatu egin zuen  
Eta biak batera  
Sutan erre zuten

6.

Etzetik joan ziren  
sorgina erretzen  
Basoan galdu ziren  
etxea aurkitzen  
Aita topatu zuten  
beraiek bilatzen  
Hirurak joan ziren  
Poz-pozik kantatzen.



### Lope de Larrea ikastola - Agurain

#### 5. B

#### ARRAUTZEZKO ARRAUTZEN OILOA

1.

Gazteluan bizi zen  
hantxe errege bat  
dirua eta urrea  
ditu erregeak  
bakarrik sentitzen zen  
zein egun tristeak  
animalia nahi du  
orain berarentzat

2.

Erregearentzako  
tximinoak zeuden  
ere bai zegoen  
lehoi txikia hemen  
ta behiak guretzako  
zukua ematen  
hartz akrobatikoa  
gazteluan zegoen

3.

Hurrengo animalia  
pasa berehala  
bi oiloak atera  
itsusia zen ala  
batek urrezko arrautza  
izan espeziala  
nekazariarena  
arrautza normala

4.

Liluragarria zen  
urrezko arrautza hori  
urre asko zuenez  
hori zeukan garbi  
erregeak esan zion  
zerbait aztiari  
ezezkoa esan zion  
urrezko oiloari

5.

Herritarra orduan  
sukaldera joan zen  
eta frijitu zuen  
arrautza ondoren  
eman erregeari  
ta dena jan zuen  
ondoren esan zuen  
zein ona zegoen

6.

Arrautza frijituarekin  
geratu zen ero  
orduan eman zion  
milioika euro  
oiloa eman zion  
herritarrak gero  
gosaldu zuen hori  
berak egunerok



### Lope de Larrea ikastola - Agurain

5. D

#### ZAZPI ANTNUMEAK

1.

Zazpi antxume ziren  
 Basoan jolasten  
 Amak erosketara  
 Joan behar zuen  
 Otsoa basoan da  
 Adi ibili ziren  
 Atea ez zabaltzeko  
 Amak esan zuen

2.

Otsoa joan zen bai  
 Atea jotzeko  
 Ta ahotsa ez zeukan  
 Amaren antzeko  
 Ez zioten ireki  
 Haiek babesteko  
 Jan zituen arrautzak  
 Ahotsa leuntzeko

3.

Berrito itzultzen da  
 Guztiak jateko  
 Ez zioten ireki  
 Marroia zelako  
 Basora sartu eta  
 Joan zen ederto  
 Irina bota zuen  
 Hankak zuritzeko

4.

Otsoa txuri-txuri  
 Hasi zen bueltatzen  
 Eta antxume gaixoeak  
 Ireki zioten  
 Txikia erlojuan  
 Hor ezkutatu zen  
 Eta beste guztiak  
 Jan egin zituen

5.

Orduan txikiena  
 Amarekin joan zen  
 Eta hasi egin zen  
 Otsoa bilatzen  
 Aurkitzean sabela  
 Ireki zioten  
 Eta sei antxumeak  
 Atera egin ziren

6.

Sabelean harriak  
 Sartu zizkioten  
 Ura edatera joan  
 Eta ito egin zen  
 Zazpi antxumetxoak  
 Salbatu ondoren  
 Eta hortik aurrera  
 Pozik bizi ziren



### Lope de Larrea ikastola - Agurain

6. A

1. (Haur hezkuntza)  
Orduan hasi ginen  
lagunak egiten  
gustura egoten ginen  
gu gailetak jaten  
siesta egin ta gero  
ez ginen nekatzen  
presarik gabe egun  
guztia jolasten

2. (1go zikloa)  
Irakasle berriak  
gure ikastolan  
guri irakasteko  
gauza asko gelan  
hasi gara guztiok  
gelako lanean  
ondo pasa genuen  
denok jolasean

3. (2. zikloa)  
Hirugarren mailatik  
azterketak hasi  
asko saiatu eta  
pila bat ikasi  
hurrengo urtean bai  
arazoak noski  
gelak aldatuz lagun  
berriak eduki

4. (3. zikloa)

Lagun onak eginez  
hona eta hara  
azterketak ederki  
eginez ahal bada  
seigarren mailan gaude  
barre ta algara  
oraindik hemen gaude  
laster joango gara

5. DBH

Espero dugu noski  
ederki hastea  
eta gure klasetan  
asko ikastea  
lagunekin batera  
ondo pasatzea  
Agur bero handia  
Lope de Larrea



**Lope de Larrea ikastola - Agurain**  
6. B

Horko irakasleak  
Zorrotzak badira  
Azterketak ta notak  
Jira eta bira  
Beldurrarekin goaz  
Bai Aniturrira  
hemen ondoan gaude  
Ez goaz urrutira  
Muxu asko zuentzat  
Bagoaz instira.

Hemengo azterketak  
Ez dute distira  
Ta hango azterketak  
Oso zailak dira  
Mate gaztelania  
Buruhauste pila  
Soinketa ta plastika  
ez hainbeste tira  
erremedio bakarra  
txuletak eginda

Ondo pasako dugu  
Araiakoekin  
Eta ere oso ondo  
Dulatzikoekin  
Asko ikasiko dugu  
Beste lagunekin  
haserretuko gara  
Horko irakasleekin  
Lagun on ta berriak  
Egin Aniturrin

Lope de Larreatik  
Etortzen garela  
Eta irakaslee  
Emango pastela  
Zorrotzegi ez izan  
Gara klase itzela  
Buruko minarekin  
Egongo zarela  
Kontuz irakasleak  
Gu bagoazela

Atsedean orduetan  
Bokata lehena  
Laugarren mailakoek  
Saldu dute dena  
Regaliz eta patata  
Beti hoberenak  
Tabernan eserita  
Kenduko dit trenak  
Eta tortillarena  
Pintxorik onena

Ikastolatik hara  
zelako ikara  
Handiekin batera  
goaz patioetara  
Araiakoekin bai  
goaz klasetara  
Institutoan orain  
asko ikastera  
Ia ez gara nagusiak  
Txikienak gara



**Lautada ikastola - Agurain**  
5. maila

PETER PAN

Wendy eta anaiak  
Zeuden irakurtzen  
Peter Pan agertu zen  
Itzala bilatzen

Ohera hurbildu zen  
Aurkitu ondoren  
Anai-arrebak denak  
Asko izutu ziren

FURRA FURRA ...

"Nunca Jamas" herrira  
Eramango zuten  
Baietz esan zuten ta  
Hegan joan ziren

Londresetik zeharka  
Oihukatu ozen  
Galdutako umekin  
Han elkartu abesten

FURRA FURRA ...

Denak bahitu zituzten  
Garfio eta Smithek  
Goxo goxo jolasten  
Hor gure anaiak

Gauza txar asko egin  
Zieten lapurrek  
Eskapatzea lortu  
Zuen Peter Panek

FURRA FURRA ...

Umeak salbatzeko  
Zelako apurua  
Garfiotik eskapatu  
Horixe helburua

Itsasoan botata  
Galdu zuen burua  
Eta krokodiloak  
Jan zion eskua





### Lautada ikastola - Agurain 6. maila

Lautada Ikastolak  
badauka ospea  
ta bertan ikasteko  
daukagu zortea  
Festa polita dugu  
ere xelebrea  
aurten tokatu zaigu  
jaia prestatzea (BIS)

Lautada ikastolan  
da festa zoroa,  
euskara zabaltzea  
da gure asmoa.  
Ekainak hemeretzi  
zelako giroa.  
Geroari begira  
da gure leloa ( BIS )

Aurtengo abestiko  
partaideak gara  
Iñaki, Unai ta Fonta  
zelako pasada  
Aurtengo abestia  
oso alaia da  
ze erritmoa duen  
goazen dantzara (BIS)

Araba euskaraz da  
festa xelebrea  
euskaraz mintzatuta  
jolas egitea  
Dantzatu eta gero  
baita abestea  
Gure helburua da  
ondo pasatzea (BIS)

Gasteizeko hirian  
ospatu zen iaz  
baina urte honetan  
Agurain da kapaz  
Zatoz gure herrira  
ez egin erdaraz  
Ekainak hemeretzi  
Araba euskaraz (BIS)



### Dulantzi Eskola - Dulantzi

#### 5. A

#### 3 TXERRITXOAK

1.

Amak esaten die  
joateko tente  
baina basoan bada  
horrenbeste jende  
txerritxoa beldurtu  
eta egin alde  
otsoarekin kontuz  
ibili zaitezte.

2.

Txikienak egin du  
etxe lastozkoa  
eta ertainak berriz  
du egurrezkoa  
eta hirugarrenak  
bai adreiluzkoa  
honela daude eginak  
hiru etxetxoak.

3.

Lehen etxeak dauka  
ugari lastoa  
putz egiteko beti  
zabalduta ahoa  
txerritxoak jatea  
da oso goxoa  
ta gero ertainaren  
etxeraino doa

4.

Bi txerritxoak daude  
begira kalera  
otsoa dator eta  
putza egitera  
egurrezko etxea  
botatzen du behera  
bi txerritxoak doaz  
adreiluzko etxera

5.

Otsoa putz egiten  
ze pobre txerria  
baina ezin du botatzen  
du pena handia  
ondoren teilatuan  
jarri du begia  
tximiniatik behera  
erre du ipurdia.



### Dulantzi Eskola - Dulantzi

#### 5. B

HAMSEL ETA GRETEL

1.

Familia txiro baten  
beti bizi ziren  
beldurtu egin ziren  
dirurik ez zuten  
janaria bilatzen  
negarrez hasi zen  
behin batean basora  
eraman zituzten

2.

Bidetik bota zuten  
ogi zatitxoak  
txoriak jan zituzten  
zatitxo guztiak  
negarrez hasi ziren  
umetxo gaixoak  
bidea ezin topatu  
galdu ziren biak

3.

Basoan aurki zuten  
etxe bat jateko  
umeak ezkutatu  
berak ez ikusteko  
baina sorgin gaiztoak  
tranpa egiteko  
sorginak esan zien  
etxera sartzeko.

4.

Hansel ta Gretel biak  
zeuden jan eta jan  
sorgina pirulina  
loditzeko asmotan  
lehendabizi Hanseli  
sorgina jan nahian  
Gretel garbitzen zuen  
ta Hansel kaiolan.

5.

Gretel bere anaia  
doa salbatzera  
Hansel ateratzen da  
poz pozik kalera  
ta biak bota zuten  
sorgina labera  
ta salbatu ondoren  
joan ziren etxera

6.

Bai Hansel ta bai Gretel  
basoa alboratu  
etxerako bidean  
sorpresa aurkitu  
sorginaren etxean  
urrea topatu  
eta biak batera  
ziren etxeratu



**Araia Herri Eskola - Asparrena**  
5. maila

Aste santu honetan  
Goaz Egiptora  
Azkar joan behar da  
Ez galdu denbora  
Ondo pasako dugu  
Goaz museora  
Eskolarik gabe gu  
Gaude oso gustora

Gaur Puerto Ricon gaude  
Eskolarik gabe  
Ez txanela ez gazte  
Ezta Mate ere  
Gu hondartzan botata  
Eskolan baino hobe  
Ez gara itzuliko  
Hemen ondo gaude

Gu Hollywooden gaude  
Gainera ederto  
Kastingo kontratua  
Dugu firmatuko  
Pelikula hau ez da  
Inoiz bukatuko  
Ez gara itzuliko  
Nik diodalako

Kaixo zer moduz zaude  
Zu Joxan mutiko  
Hondartza bai bagaude  
Salto eta brinko  
Diskotekako martxa  
Guk dugu gustuko  
Oporretatik berriz  
Ez gara itzuliko

Agur ta ondo pasa  
Joxan eta Maite  
Ez gara ikusiko  
Hurrengo urte-arte  
Biok joango gara  
Bai azkenerarte  
Miami – Venecia  
Vuelo bat daukate

Maite ditugu oporrak  
Ta eguzki izpia  
Bertso hau izango da  
Zuen oparia  
Ez al dizugu ematen  
Zuri inbidia  
Guk asko maite dugu  
New Jersey hiria



**Araia Herri Eskola - Asparrena**  
6. maila

Kaixo guzti guztioi  
Gu gaude poztuta  
Egun hau ez delako  
Bizitzan arrunta  
Maite bezala gaude  
Gu jubilatuta  
Krema toalla eta  
Motxila hartuta  
Benidorrera goaz  
Eskola amaituta

Eskolako lagunak  
Ez dira betiko  
baina irakasleak  
ditugu utziko  
oporretara goaz  
ondo pasatzeko  
gogo asko daukagu  
esateko kitto  
agur Araia eskola  
ez gara ikusiko

Gure azken urtea da  
Hori bai seguru  
Ta hurrengo urtean  
Milaka liburu  
Klasekide berriak  
Izango ditugu  
Dena aprobatzea  
Dugu gure helburu  
Aniturrira goaz  
Geratu nahi dugu

Eskolatik bagoaz  
hola edo hola  
faltan botako dugu  
patioko futbola  
beroa egiten du eta  
eman koka-kola  
agurra ospatzeko  
egin merendola  
agur irakasleak  
eta agur eskola

Eskola honen dauka  
Hamaika histori  
Denok gogoratzeko  
Dugu festa hori  
Aniturrira goaz  
Eta gaude urduri  
Ikastola omentzea  
Dagokigu guri  
50 urte  
Zorionak zuri

Inguruko bertso-eskolak  
2015-2016 ikasturtea

LAUTADAKO BERTSO-ESKOLA

Euskal txokoa

Aguraingo euskaltegia

01200 AGURAIN

Arduradunak: Oier Arbina (Agurain) eta Oier Suarez (Zalduondo)

Tel: 945010505 (Arabako Bertsozale Elkarte)

e-posta: araba@bertsozale.eus



AMAIA ZENTROA

Pérez Galdós z/g

01002 GASTEIZ

Tel: 945010505 fax: 945288275

Mug: 688695875 - 688616531

e-posta: araba@bertsozale.eus

[www.bertsozale.eus/araba](http://www.bertsozale.eus/araba)

